**BAZTAN BALLEKO UDALA**
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN -NAVARRA-

# 2013KO MARTXOAREN 22KO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

## *SESION PLENARIA EXTRAORDINARIA DE 22 DE MARZO DE 2013*

Baztango Udaletxeko Bilera Aretoan, 2013ko martxoaren 22an, goizeko 8:00etan, Baztango Udaleko Osoko Bilkura bildu da, ez-ohiko bileran, Garbiñe Elizegi Narbarte alkate anderearen lehendakaritzapean, eta zinegotzi hauek etorri dira: Mikel Ortega Arraztoa, Mª Teresa Oteiza Apecechea , Maitane Maritorena Azkarate eta Jon Elizetxe Bidegarai, BILDU taldekoak; Mª Carmen Iribarren Iribarren, Mª Isabel Olave Ballarena, Leopoldo Jaén Sobrino, Jose Mª Garmendia Arizmendi, UPN taldekoak; Florentino Goñi Telletxea, Iñigo Iturralde Eliceche BAZTANGO EZKERRA taldekoak; Maite Juliana Iturre Llano, NABAI (2011) taldekoa.
Ez da bertaratu: Begoña Sanzberro Iturriria,
Idazkari lanetan, Iulen Urbiola Loyarte jauna ari da.

Alkate anderearen aginduz, bilkura hasi da.

*En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 8:00 de la mañana del día 22 de marzo de 2013, se reúne, en sesión extraordinaria, el Pleno Municipal, presidido por la alcaldesa Garbiñe Elizegi Narbarte y con la asistencia de los siguientes concejales: Mikel Ortega Arraztoa, Mª Teresa Oteiza Apecechea, Maitane Maritorena Azkarate y Jon Elizetxe Bidegarai, del grupo BILDU; Mª Carmen Iribarren Iribarren, Mª Isabel Olave Ballarena, Leopoldo Jaén Sobrino, José Mª Garmendia Arizmendi, del grupo UPN; Iñigo Iturralde Eliceche y Florentino Goñi Telletxea, del grupo BAZTANGO EZKERRA; Maite Juliana Iturre Llano, del grupo NABAI (2011).*
*No ha asistido: Begoña Sanzberro Iturriria,*
*Actúa como secretario, Iulen Urbiola Loyarte.*

*La alcaldesa da comienzo a la sesión.*

### 1.- 2013KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN AZTERKETA ETA EGOKI IKUSTEN BADA, ONARPENA.

Hasiera eman zaio Udalbatza honen eta haren menpekoak diren Francisco Joaquin Iriarte Zahar-etxearen eta Baztango Udal Ikastola Aurrekontu Arruntaren eta hari dagozkion Betearazpen Oinarrien azterketari, halaber Giltxaurdi enpresa publikoaren sarreren eta gastuen aurreikuspenei 2013ko ekitaldirako.
Aurrekariak azalduta, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuta, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoak, Alkatetzak bozkatzeko deia egiten du:
Aldekoak 8, Bildu, Baztango Ezkerra, NABAI(2011)
Kontrakoak 4, UPN

**Erabakitzen da:**
**Lehendabizikoa:** Baztango Udaleko eta bere menpeko Francisco Joaquin Iriarte Zahar-etxeko eta Baztango Udal Ikastolako Aurrekontu Arruntari eta dagozkion Egintzarako Oinarriei, halaber Giltxaurdi enpresa publikoaren sarreren eta gastuen aurreikuspenei hasierako onespena ematea, 2013ko ekitaldirako.
Horien inguruko zehaztapenak irekitako espedientean daude, saio honi dagokion espedientearekin batera artxibaturik eta honakoa izanik horren laburpena:

### *1.- EXAMEN Y EN SU CASO APROBACIÓN DEL PROYECTO DE PRESUPUESTO ORDINARIO PARA EL EJERCICIO DE 2013.*

*Se ha procedido al examen del Presupuesto Ordinario y correspondientes Bases de Ejecución de esta Corporación, y de los entes dependientes de la misma, Residencia de Ancianos y Jubilados Francisco Joaquín de Iriarte e Ikastola Municipal de Baztan, así como la previsión de gastos e ingresos de la empresa pública Giltxaurdi para el ejercicio 2013.*
*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión, alcaldía llama a votar la propuesta:*
*A favor 8, Bildu, Baztango Ezkerra NABAI (2011)*
*En contra 4, UPN*

***Se acuerda:***
***Primero:** Aprobar inicialmente el Presupuesto Ordinario y correspondientes Bases de Ejecución de este Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad de Baztan y de los entes dependientes Residencia de Ancianos y Jubilados Francisco Joaquín de Iriarte e Ikastola Municipal de Baztan, así como la previsión de gastos e ingresos de la empresa pública Giltxaurdi para el ejercicio 2013.*
*El detalle de los mismos obra en el correspondiente expediente incoado al efecto, que queda archivado junto al de la presente sesión, siendo su resumen el que seguidamente se indica:*

BAZTANGO UDALEKO TOKI ENTITATEAREN AURREKONTUA
PRESUPUESTO AYUNTAMIENTO DE BAZTAN

| PPTO. DE GASTOS 2013 | CREDITO INICIAL | |
|---|---|---|
| AYTO.DE BAZTAN | EUROS | |
| CAP.1 Gtos.de personal | 2.280.950,00 € | 33,49% |
| CAP.2 Gtos.bienes crrts.serv. | 2.434.600,00 € | 35,74% |
| CAP.3 Gtos.financieros | 147.000,00 € | 2,16% |
| CAP.4 Transferencias crrtes. | 702.140,00 € | 10,31% |
| CAP.6 Inversiones reales | 596.270,00 € | 8,75% |
| CAP.7 Transf.y otros ing. | 54.100,00 € | 0,79% |
| CAP.9 Pasivos financieros | 596.100,00 € | 8,75% |
| TOTAL | 6.811.160,00 € | 100% |

BAZTANGO UDALEKO TOKI ENTITATEAREN AURREKONTUA
PRESUPUESTO AYUNTAMIENTO DE BAZTAN

| PPTO. DE INGRESOS 2013 | PREVISION INICIAL | |
|---|---|---|
| AYTO.DE BAZTAN | EUROS | |
| CAP.1 Imptos.directos | 2.048.500,00 € | 30,08% |
| CAP.2 Imptos.indirectos | 364.800,00 € | 5,36% |
| CAP.3 Tasas y otros ingresos | 766.768,00 € | 11,26% |
| CAP.4 Transferenc.crrtes, | 2.852.550,00 € | 41,88% |
| CAP.5 Ingr.patrim.y comunales | 386.837,00 € | 5,68% |
| CAP.6 Enaj.invers.reales | - € | 0,00% |
| CAP.7 Transf.y otros ing. | 391.705,00 € | 5,75% |
| CAP.8 Activos financieros | - € | 0,00% |
| CAP.9 Pasivos financieros | - € | 0,00% |
| TOTAL | 6.811.160,00 € | 100% |

BAZTAN IKASTOLAKO ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA
PRESUPUESTO OO.AA. IKASTOLA BAZTAN

| PPTO. DE GASTOS 2013 | CREDITO INICIAL | |
|---|---|---|
| IKASTOLA BAZTAN | EUROS | |
| CAP.1 Gtos.de personal | 510.189,15 € | 86,11% |
| CAP.2 Gtos.bienes crrts.serv. | 80.815,76 € | 13,64% |
| CAP.3 Gtos.financieros | 1.500,00 € | 0,25% |
| CAP.6 Inversiones reales | - € | 0,00% |
| TOTAL | 592.504,91 € | 100% |

BAZTAN IKASTOLAKO ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA
PRESUPUESTO OO.AA. IKASTOLA BAZTAN

| PPTO. DE INGRESOS 2013 | PREVISION INICIAL | |
|---|---|---|
| IKASTOLA BAZTAN | EUROS | |
| CAP.3 Tasas y otros ingresos | 56.021,05 € | 9,45% |
| CAP.4 Transferenc.crrtes, | 536.483,86 € | 90,55% |
| TOTAL | 592.504,91 € | 100% |

F.J. IRIARTE ZAHAR EGOITZAREN ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA
PRESUPUESTO O.AA. RESIDENCIA DE ANCIANOS F.J. IRIARTE

| PPTO. DE GASTOS 2013 | CREDITO INICIAL | |
|---|---|---|
| RESIDENCIA | EUROS | |
| CAP.2 Gtos.bienes crrts.serv. | 105.000,00 € | 95,45% |
| CAP.6 Inversiones reales | 5.000,00 € | 4,55% |
| TOTAL | 110.000,00 € | 100% |

F.J. IRIARTE ZAHAR EGOITZAREN ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA
PRESUPUESTO O.AA. RESIDENCIA DE ANCIANOS F.J. IRIARTE

| PPTO. DE INGRESOS 2013 | PREVISION INICIAL | |
|---|---|---|
| RESIDENCIA | EUROS | |
| CAP.3 Tasas y otros ingresos | 8.700,00 € | 7,91% |
| CAP.4 Transferenc.crrtes, | 96.000,00 € | 87,27% |
| CAP.5 Ingr.patrim.y comunales | 300,00 € | 0,27% |
| CAP.7 Transf.y otros ing. | 5.000,00 € | 4,55% |
| TOTAL | 110.000,00 € | 95% |

**Bigarrena:** Osoko Bilkurak Aurrekontuari hasierako onespena emanda, 15 egun baliodunez izanen da jendaurrean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan argitaratu eta gero, herritarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egoki ikusten dituzten erreklamazioak aurkez ahal izan ditzaten.

**Hirugarrena:** Erreklamaziorik izanez gero, Osoko Bilkurak horien eta aurrekontuaren behin-betiko onarpenaren gaineko akordio zehatza hartuko luke. Erreklamazioarik ez balego, aurrekontuak behin-betiko onartutzat emanen dira, jendaurreko epea igaro ondoren.

***Segundo:*** *Aprobado inicialmente el presupuesto por el Pleno, se expondrá en Secretaría por período de 15 días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.*

***Tercero:*** *Si se formularan reclamaciones, el Pleno adoptará acuerdo expreso relativo a la resolución de aquéllas y a la aprobación definitiva del presupuesto. Si no se hubiesen formulado reclamaciones, el presupuesto se entenderá aprobado definitivamente, una vez transcurrido el período de exposición pública.*

***Mª Carmen Iribarren, UPN*** (bozka azalpena - *explicación de voto): En primer lugar, justificamos nuestro voto en contra al proyecto de presupuesto, en las 48 horas, menos las de dormir, de las que hemos dispuesto para la revisión de dicho documento. Un proyecto de presupuestos que, en un Gobierno con mayoría absoluta, ha necesitado demorarse hasta el mes de marzo para su presentación al Pleno. Un Pleno en el que el grupo municipal de UPN tiene una representatividad del 39%, y en el que sólo disponemos de 48 horas para la responsable evaluación del presupuesto. Todo esto, teniendo en cuenta la gestión abierta y participativa de la que hace gala este equipo de gobierno, que con esta actuación queda en evidencia, anulando la participación y la representación de la fracción política más numerosa de Baztan, a la que representa UPN. Un plazo para el estudio y valoración de la decisión más importante que adopta una Corporación, y que fija las políticas y las directrices que van a regir la gestión de Baztan y de los dineros de los Baztandarras, que no se da en ningún otro Ayuntamiento de Navarra de ninguna condición política. Un plazo para el que este equipo de gobierno se ha superado a sí mismo, rebajando los ya escasos 9 días que nos fueron concedidos el pasado ejercicio para el estudio del mismo documento, a 48 horas. Y un documento que disfraza intenciones de gestión, con conceptos borrosos y nada concretos. Sostenido por una recaudación que proviene directa y principalmente, de las inspecciones emprendidas por el equipo de gobierno. Por ello, nos acogeremos a nuestro derecho de presentar alegaciones a este documento.*

**Maite Iturre, NABAI (2011) (bozka azalpena):** Aldeko botoa eman dut krisi egoera honetan aurrekontu hauek gai inportanteak babesten dituztelako: efizientzia energetikoa, gizarte zerbitzuak, berdintasun teknikaria eta abar. Bakarrik faltan botatzen dut aurrekontuak osatzeko prozeduran herritarren partizipazio handiagoa.

***Maite Iturre, NABAI (2011) (explicación de voto):*** *He votado a favor porque en esta época de crisis entiendo que estos presupuestos garantizan temas muy importantes: eficiencia energética, servicios sociales, técnica de igualdad etc. Sólo hecho en falta una mayor participación ciudadana en el momento de hacer los presupuestos.*

**2.- 2013KO EKITALDIKO PLANTILLA ORGANIKOAREN AZTERKETA ETA EGOKI IKUSTEN BADA, ONARPENA**

Nafarroako Administrazio Publikoko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak ezarritakoari eta Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Ordainsariak Arautzen dituen Behin Behineko Araudia onesten duen uztailaren 4ko 158/84 Foru Dekretuari jarriki, eta halaber, gai hori arautzen duten gainerako xedapen aplikagarriek ezarritakoari jarraituz, Udal honi dagokion 2013ko ekitaldirako Plantilla Organikoari dagokion espedientearen berri eman zitzaion Udalbatzari.

Aurrekariak azalduta, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuta, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoak eta honela laburbiltzen direnak:

**Isabel Olave, UPN:** Kontuan izanda plantillako lanpostu gehienak osagarriak dituztela kontratatu berriak izan ezik, oinarrizko gizarte zerbitzuko kontratatutako B mailako langileei eta berdintasun teknikariari osagarria onartzea proposatzen dugu.

**Garbiñe Elizegi, alkatea:** Proposamen zehatz bat egin beharko duzue. Hala ere, ez dakit zergatik aipatzen dituzuen hiru horiek eta ez plantilla osoa; 30 langile baino gehiago daude eta guk ulertzen dugu osotasunean aztertu behar direla osagarriak eta ez zatika.

**Isabel Olave, UPN:** Ni nire hitzez arduratzen naiz eta ez zuk egiten duzun irakurketaz. Gainerako langileek osagarriak dituzte eta bakarrik eskatzen dugu baloratzea hiru lanpostu horiei ematea.

**Garbiñe Elizegi, alkatea:** Zuek zarete diskriminatzen ari zaretenak bakarrik hiru lanpostu horiek aipatuz. Uste dugu gaurko plantilla organikoaren gorabeherak banakako irtenbideak bilatu eta lortzearen ondorioz direla. Plantilla organikoa hobetu behar da, baino bere osotasunean eta ez banaka.

Alkatetzak bozkatzeko deia egiten du
Aldekoak 8, Bildu, Baztango Ezkerra, NABAI(2011).
Kontrakoak 4, UPN

**Erabakitzen da:**

**Lehedabizikoa:** 2013 urterako hasierako onespena ematea, urtarrilaren 1etik aitzineko ondorio ekonomikoekin, Baztango Udaleko Plantilla Organikoari. Horren zehaztapenak horretarako irekitako espedientean daude, honako saioari dagokion espedientearekin batera artxibaturik dagoena.

**Bigarrena:** Lan-kontratudun finkoen, aldi baterako eta behin-behineko administrazio-kontratudunen funtzionarioen izenen zerrendak onestea, 2013ko urtarrilaren 1ri dagozkionak.

**Hirugarrena:** Osoko Bilkurak plantillari hasierako onespena emanda, 15 egun baliodunez izanen da jendaurrean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki- taulan argitaratu eta gero, herritarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egoki ikusten dituzten erreklamazioak aurkez ahal izan ditzaten.

**Laugarrena:** Erreklamaziorik izanez gero, Osoko Bilkurak horien eta plantillaren behin-betiko onarpenaren gaineko akordio zehatza hartuko luke. Erreklamazioarik ez balego,

***2.- EXAMEN Y EN SU CASO APROBACIÓN DE LA PLANTILLA ORGÁNICA PARA EL EJERCICIO 2013.***

*En virtud de lo establecido en el Decreto Foral Legislativo 251/1993, de 30 de agosto, por el que se aprueba el Texto Refundido del Estatuto del Personal al servicio de las Administraciones Públicas de Navarra y en el Reglamento Provisional de Retribuciones del Personal al servicio de las Administraciones Públicas de Navarra, aprobado por Decreto Foral 158/84 de 4 de julio, así como en las demás disposiciones aplicables reguladoras de la materia, se puso en conocimiento de la Corporación el expediente correspondiente a la Plantilla Orgánica de este Ayuntamiento para el ejercicio de 2013.*

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión y que se resumen:*

***Isabel Olave, UPN:** Teniendo en cuenta que existen complementos en todos los puestos excepto en los de nueva contratación, solicitamos que se valore la posibilidad de otorgar complemento a los dos niveles B contratados en el servicio social de base y a la técnico de igualdad.*

***Garbiñe Elizegi, alcaldesa:** Tendréis que hacer una propuesta concreta. De todas formas, no sé por qué solo mencionáis esos tres puestos y no toda la plantilla. Hay más de 30 trabajadores y entendemos que hay que analizar todos los complementos y no por partes.*

***Isabel Olave, UPN:** Yo me responsabilizo de lo que digo y no de lo que interpretas. Todo el resto de plazas tienen complementos y solicitamos que se evalúe la posibilidad de otorgar a estas tres.*

***Garbiñe Elizegi, alcaldesa:** Vosotros sois los que discrimináis al analizar sólo tres puestos de trabajo. Estamos convencidos que los desfases de la actual plantilla orgánica son consecuencia de buscar y garantizar salidas individuales. Hay que mejorar la plantilla orgánica pero en su totalidad y no por partes.*

*Alcaldía llama a votar la propuesta:*
*A favor 8, Bildu, Baztango Ezkerra , NABAI (2011)*
*En contra 4, UPN*

***Se acuerda:***

***Primero:** Aprobar inicialmente para el año 2013 y con efectos económicos de 1 de enero del mismo la Plantilla Orgánica del Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad de Baztan, cuyo detalle obra en el expediente incoado al efecto y que queda archivado en el de la presente sesión.*

***Segundo:** Aprobar las relaciones nominales de funcionarios, de personal laboral fijo de régimen laboral, de personal temporal en régimen administrativo y eventual, referidas a 1 de enero de 2013.*

***Tercero:** Aprobada inicialmente la plantilla por el Pleno, se expondrá en la Secretaría por período de 15 días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.*

***Cuarto:** Si se formularan reclamaciones, el Pleno adoptará acuerdo expreso relativo a la resolución de aquéllas y a la aprobación definitiva de la plantilla. Si no se hubiesen formulado reclamaciones, la plantilla se entenderá aprobada*

plantilla behin-betiko onartutzat emanen da, jendaurreko epea igaro ondoren.

**Bortzgarrena**: Udaltzainen koordinatzaile postua betetzeko Francisco Javier Irureta Rodenas jauna izendatzen da eta mantentze lanetako bigarren mailako behargin ofiziala Jose Mª Celayeta Sarratea jauna izendatzen da.

*Mª Carmen Iribarren ateratzen da*

**3.- BAZTANGO UDAL PLANAREN ALDAKETA. BEHIN-BETIKO ONESPENA: BIRZATIKETA PROIEKTUA. LEKAROZKO UE-2 EXEKUZIO UNITATEA. CONSTRUCCIONES ARAKAN SL ETA FELICITAS MEOQUI.**

Construcciones Arakan SLek eta Felicitas Meokik aurkeztu zuten Lekarozko UE-2 exekuzio unitatearen birzatiketa proiektua. 2012/08/30ean proiektuari hasierako onespena eman zitzaion. Jendeaurreko epea behin akituta eta kontuan harturik alegaziorik ez dela izan, Udalbatzak 11 aldeko botoekin eta abstentzio batekin **erabaki du:**

**Lehendabizikoa: Behin betikoz onestea** Construcciones Arakan SLek eta Felicitas Meokik aurkeztu zuten Lekarozko UE-2 exekuzio unitatearen birzatiketa proiektua. Hori guztia, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 151. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

**Bigarrena:** Birzatiketa proiektuaren behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 81.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

**Hirugarrena:** Behin betiko onespenari buruzko erabakia Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamenduaren, Mugikortasunaren eta Etxebizitzaren Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko zaio 15 eguneko epean.

*Mª Carmen Iribarren sartzen da.*

**4.- 52/2013 ALKATETZA EBAZPENA BERRESTEA.**

Alkateak ebazpenaren edukiak azaltzen ditu eta Osoko Bilkurak 8 aldeko botoekin eta 4 kontrakoekin ebazpena **berresten** du.

Jarraian Alkate andereak bilkura amaitutzat eman du 8:30ean, idazkari gisa horren guztiaren fede ematen dut.

*definitivamente, una vez transcurrido el período de exposición pública.*

***Quinto:*** *Se designa para ocupar el puesto de coordinador de agentes de policía local al funcionario D. Francisco Javier Irureta Rodenas, y para el de encargado de obreros oficial 2ª de mantenimiento al funcionario D. José Mª Celayeta Sarratea.*

Mª Carmen Iribarren sale de la sala

***3.- MODIFICACIONES AL PLAN MUNICIPAL DE BAZTAN. APROBACIÓN DEFINITIVA: PROYECTO DE REPARCELACIÓN, UNIDAD DE EJECUCIÓN UE-2 DE LEKAROZ. CONSTRUCCIONES ARAKAN, S.L. Y FELICITAS MEOQUI.***

*Construcciones Arakan S.L. y Felicitas Meoki presentaron proyecto de reparcelación, unidad de ejecución UE-2 de Lekaroz. Con fecha de 30/08/2012 el proyecto de reparcelación fue aprobado con carácter inicial. Una vez pasado el tiempo de exposición pública y a la vista de que no hay alegaciones, el Pleno por 11 votos a favor y 1 abstención acuerda:*

***Primero: Aprobar definitivamente*** *el proyecto de reparcelación, unidad de ejecución UE-2 de Lekaroz, presentado por Construcciones Arakan S.L. y Felicitas Meoki, todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 151 de la Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, de Ordenación del Territorio y Urbanismo.*

***Segundo:*** *La aprobación definitiva del proyecto de reparcelación se publicará en el Boletín Oficial de Navarra, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 81.1 de la Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, de Ordenación del Territorio y Urbanismo.*

***Tercero:*** *El acuerdo de aprobación definitiva se comunicará a la Dirección General de Ordenación del Territorio, Movilidad y Vivienda del Gobierno de Navarra, en el plazo de 15 días.*

Mª Carmen Iribarren entra en la sala.

***4.- RATIFICACIÓN DE RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA 52/2013.***

*Alcaldía da a conocer el contenido de la Resolución de Alcaldía, que el Pleno* ***confirma*** *con 8 votos a favor y 4 en contra.*

*Seguidamente, por la Sra. alcaldesa-presidenta, se levanta la sesión, siendo las 8:30 horas, de todo lo cual, como secretario doy fe.*

ALKATEA
*LA ALCALDESA*

IDAZKARIA
*EL SECRETARIO*